

Lurrak oinpean, itxas antzera,
 aier-murrusa bizia;
 sukalde gozo ta eleiz-zutoin,
 oi!, dana bera jausia.

Odol orbana dozu soiñean,
 begia lausoz laiñoa;
 adur txar antzo gain dabilkizu,
 garrasiz, bela gaiztoa.

Len eder ziñan, Aberri ona,
 gaur obi illauna, triskantza;
 len eguzkia, izpi-jaurtika,
 gaur, barriz, illik gorputza.

Nun ete dozu lengo ederra?
 Nok itzal begi-argia?
 Zure baratzen ez da nabari
 len lez usaintsu lilia.

Ez, arren, zizta odol-begikaz
 lengo garitza sotilla:
 oro galkuntza, oiñaz-adia,
 dana dakuszu pirtxilla.

Aiots jtuna dakar aizeak:
 «Erruki —diño— erruki!»
 Ta goira doa, kea bai litzan,
 samin-otoitza gartsuki.

Odol-ixurki euzki-lurrean,
 nai-non erein da zotiña;
 ibaiak gorri, jgar goenak,
 eriok artu lur-gaiña.

Baiña ez auldu, euzkotar gogo,
 odol lurrean jausia.
 Oi! Zer jzango? Zer deritxazu?
 Azkatasunan azia.

UR-EGALEAN

Ibar-muiñotxoan zut gaztaiña makurra:
 garitzea beerago, urrezko kulunkaz...
 Lizar itzaltsu baten orpoa, balantzaz,
 beerago zerbait, urak darabil kizkurra.

Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean etzana,
 gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?
 Bedar-ogean datza dirdai eguzkitan,
 esku biak bular gain, bits-jariz ezpana.

Illik dago gaixoa. Iru zauri laru
 daukaz saiets aldera, odolez beteak.
 Orain ez dau indartzen bizi-arnaseak
 ain argitsua eban zintzozko begitu.

Zurmur gozoz zoazan lizar-orpoko jbai,
 jagon eizu gazte au, osorik, eukana
 Aberriaren alde opetsi dauana!
 Uraren gardena! Jo zuk illeta-dindai!

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi
 ta gaztearen soiña bertan dot eratu,
 lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.
 Jausi ba'nendi, esku on bat nitzat bedi.

BASERRIAN JAUSIA

Etxat aiztuko ez, gazte,
 ire jausiaren latza:
 bonbaz jota, ez ustez,
 atsegin uan etxe aurrean,
 ilda jausi intzan gaixoa;

len eder intzana soiñez,
ezain dok begikunea,
gorputza loi lakarrez.

Zerk au ortara ekarri?
Ez al intzan errubage?
Sort-lurra maitatzea
noiztik ete dok, noiztik pekatu?
Or intzan beti langille,
maite uala sort-etxea,
iñoiz txarrik pentsa bage,
alai begitartea.

Maite aut nik, ene gazte,
etsai bonbaz ler-azita
etxaurrean jausia.
Lengo txoriak ez yok kanturik
sagar adarren gaiñean;
ama dok txit eratsia;
aita, i barik, biotz lertu,
min-arantzaz ornia.

Nik, bai!, lurra dauat emon
teillatu txitxin azpian.
Miñez esku bete lur
egotzi dauat obi buruan,
eta miñez nok aldendu
jre gomuta latzari
eziñik jñola itzur.

SUTAN

Begi-aur zaitut, uri!, euskal eleiz zarra!
Kiskal zakustaz dana, gar, errauts egiña;
ilkor lerkaiz zaitue zanpatu zakarra;
gaiñ bota dautzue, nasai, errekiña.

Eziñaren garrasi, eriotz-negarra
zabal dituk edatu, doixtar egazkiña.
Errugea dok zuzi —ire biotz txarra!—.
Nork iri, ai!, opako parkamen ariña?

Amaitu eziñeko eztanda gaiztoa,
gordeleku billako jenteen arrápala...
Ifernu bizia dot Gernika osoa.

Joanak, ezkenik be, doixtar sai gaizkiñak.
Gaiñez gaiñ errukior da jasten itzala...
Lazkor dira bazterrak, su-mendi egiñak.

EURIA TA URIA

Atzo arratsalde, lerkaiak zetuta,
ainbat jausi ziran gure uri maitean;
garrasika zarrak, ta umeak txilioz
erio-zain oar nitun illuntzean.

Gaur, eguna argituz
jori da euria,
eriotz-aldiko
amaitze larria.

Ixil ta iraun dator, nekatua legez,
erreriko uria estalpetu nairik;
egiz, orkatz-nagi euria beerantza,
erriaren lotsa pizkat babesturik.

Erreriko uria,
txoko lotsaritu,
euriak nai ausaz
eun bustiz beatu.

Dana ingurumari, il-urren bai'litzan;
ta iges doa bizkor uriko jentea